

Txata, ziberespazioan lagunak egitea baino gehiago: esperientzia bat irakasleekin HABEnet campusean

Iñaki Murua

Interneten bitartez denbora errealean erabiltzaile birekin edo gehiagorekin mezuak trukatzeko aukera ematen dien sistema dugu txat-a. Gizartean zabaldu dagoen ustea gaindituta, denbora pasatzeko modua baino gehiago ere bada. Horren lekuko dugu 2004ko udaberrian Bizkaiko euskaltegietako irakasle batzuekin buruturiko esperientzia. Lan hori egin zen Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikuluan ezarritako mailak egiaztatzeko deialdian aztertzaile izango zirenen akreditazio-prozesuaren baitan.

Bihozkie hemendik eskerrik beroenak zuzenean partaide izan zirenei (Maripa, Lourdes, Miren, Garbiñe, Pili, Susana eta Ima).

Oharra: artikuluan zehar agertuko diren Interneteko erreferentzia guztiak 2004ko irailean bisitatu ziren.

Sarrera: “denbora badoa, eta gu harekin”

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia ekonomia, gizartea eta kultur bizitza eraldatzen ari dira. Iraultza horretan, sare telematikoak dira *iceberg*-aren tontorra (Echeverría, 2000b). Zalantza zalantza eta eztabaidak eztabaida¹ bilakaerak ez omen du atzera egingo. Joan den hamarkadako “ziberoptimismoa” gaindituta, Internet eta informazioaren gizartea moda bat baino gehiago da (Gallego eta alii, 2003; Badia, 2002: 12). Eta aipatu ditugun sareek elkarrekin komunikatzeko eskaintzen diguten aukera da, hain zuzen, hezkuntzaren esparrurako azpimarratzen den arloetako bat.


Testuinguru horretan, 2000ko otsailean HABEnet sarea jarri zen martxan, besteak beste, euskara eta euskararen irakaskuntza informazioaren teknologietan txertatzeko asmoarekin. Eskaintzen dituen aukera eta zerbitzuen artean HABEnet “*Chat-a*” dago (ikus .1).

2003/2004 ikasturtean Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikuluan ezarritako lehen eta bigarren mailak egiaztatzeko sistema jarri du indarrean HABEk². Lehendabiziko deialdirako euskaltegiek aztertzaile izango ziren irakasleak aukeratu zituzten eta akreditazio-prozesu bat jarri zen martxan 2004ko otsailetik aurrera.

¹Esate baterako, RED DIGITAL aldizkari elektronikoaren 1. alean “Tecnologías y educación: horizonte de un cambio” artikulua eta elkarrizketa ugari dago gaiaren inguruan
<<http://hera.cnice.mecd.es/reddigital/1/index.html>>

² 179/2003 Dekretua uztailaren 22koa, Kultura Sailburuaren 2003ko abuztuaren 6ko Agindua, 2004ko Martxoaren 11ko HABEren zuzendari nagusiaren Ebazpena.

.1: HABenet chat-ean sartzeko pantaila



Irakasle horien prestaketarako eta irizpideak bateratzeko HABenet plataforma baliatzea erabaki zen. Astebeteko *on-line* ikastaroa eskaini zitzaizen aukeraturakoei campusa eta horren oinarritzko erabilera ezagutzeko. Ondoren, 12 taldetan banatuta, HABEko kide banaren tutoretzapean ekin zitzaion lanari.

Zer esan nahi dugu txata esaten dugunean?: “ulertzen eztan hitza, prestu ez”

1. irudia

Sarri hitz egiten da txatez eta askok dute jadanik horien inguruko iritzia. Benetako ezagutza-maila, aldiz, azalekoa da gehien bat: “*Anuario SGAE 2004 de las Artes Escénicas, Musicales y Audiovisuales*” txostenaren arabera³, biztanleen herenak gutxi gora behera erabiltzen du Internet Euskal Autonomia Erkidegoan, eta, erabiltzaileen herenak baino ez du txatetan parte hartzen.

Chat hitza ingelesez dator; haren itzulpena da: berriketa, hizketa, solasa. Baina, nolabaiteko solasaldiaz ari gara: Internet bitartez, ordenagailua lagun, pertsona batek idazten duena berarekin konektaturik dauden gainerakoen pantailetan ia berehala agertzen da. Beste pertsona horiek erantzuna teklatuaren bitartez idazten dute.

Bi bide daude konektatzeko: zerbitzu hori eskaintzen duen web gune baten bitartez edo programa espezifikoak eta zerbitzariak baliatuta. Programa espezifikoaren artean IRC deritzona izan da erabiliena (Internet Relay Chat edo “berriketa txandaka Internetez”) Horregatik, maiz sinonimotzat jotzen dira IRC eta txat hitzak.

Txataren bidez harremanetan jartzeko konektatzen direnak areto edo kanal birtualetan elkartzen dira. Horietan sartzea ez da beti librea izaten. .1 irudiari erreparatzen badiogu, HABenet chatean dauden “areto” batzuk ikusiko ditugu, “*irakasle-gela*”, “*kafe-txokoa*” eta “*lagunduko?*” esate baterako.

Erabiltzaileak goitizena (ingelesez *nick* edo *nickname*) aukeratu du areto birtual batean sartu aurretik. Hona hemen beste ezaugarri garrantzitsu bat: identifikatu ezean, solaskideak anonimoak izango dira. Anonimotasun horrek eragin psikologikoak ditu, inhibizioa txikitzea, esaterako.

Aretoan sartutakoan bi aukera daude hitz egiteko, bizitza “errealean” gertatzen denaren antzera: kanalean dauden guztiei zuzendutako elkarrizketa publikoa, eta pribatua, partaide batekin bakarka. Internautaren trebetasun-mailaren arabera, areto desberdinetan eta elkarrizketa anitzetan parte hartzen ahal da, baina, hala eginez gero, elkarrizketok ez dira nahastuko, bakoitzak bere “leihoa” izango baitu. Elkarrizketez gain, aretoan daudenen zerrenda ikusteko era izaten da.

³ <<http://www.artenetsgae.com/anuario/home.html>>


.2 irudian dugu, HABEnet *chat*-ean sartuz gero, ikusiko dugun pantaila eta orain arte esandakoak nola bistaraten diren.

Denbora bertsuan gertatzen den komunikazioa edo “komunikazio sinkronikoa” bideratzeko bitarteko eta tresna gehiago dago. Erremintok ahotsa edota irudia ere baliatzen dute. Dena dela, Ali Gago eta Lunari jarraikiz (1998), zentzu hertsian definitu dugu txata; HABEneten 2004an dagoen sistema horrelakoa baita. Horrez gain, txata da hedatuena eta erabiliena oraingoz (Cabero, Llorente eta Romanen; 2004) eta sistema konplexuagoekin berez ez da dena aldekoa (Isla eta Ortega, 1999)

Erreminta erabilgarria da?: “zenbat buru, hainbat aburu”

Lehen hurbilpenean erakargarria da: ordenagailua eta Internetarako lotura duen munduko edozein pertsonarekin komunikatzeko aukera eskaintzen du, merke antzean gainera. Are, dibertigarria dela ematen du: moderaturik gabeko saio gehienetan ez dugu jakingo bestearen adina, sexua edota pertsona bakarra denentz; geuk ere nahi duguna asma dezakegu. Irudimenak, beraz, sekulako pisua du eta horretan datza sistemaren xarma askoren ustetan (Nuñez, 2001).

.2: HABEnet chat-ean sartu ondoren aurkituko dugun pantaila eta azalpenak



Oro har, nerabeekin eta denbora-pasekin lotzen den arren, egiaztatu da txataren erabilera gero eta hedatuagoa dela eta erabilera-esparruak zabaltzen ari direla (Badia, 2002: 24). Ez dugu ukatuko, alabaina, kritika ugari jasotzen duela.

Horrela,irtualitatean burutzen den hainbat jarduerari bezala, isolatzea eta individualismoa indartzea egozten zaio, gizatasuna kentzea alegia. Sistema horretan, gainera, iruzur egitea ohikoa dela pentsatzen denez, uste hedatua da zintzotasun-falta dagoela eta sistemak ganora eskasa duela serio lan egin ahal izateko. Hori gutxi balitz, txat-saio arruntetan sortutako elkarrizketek kalitate linguistikoa apala dute ikertzaile batzuen ustetan (Cervera, 2001; Blanco, 2001).

Baina txataren txanponak ere badu beste aldea. Lehenengo eta behin, saioen nolakotasuna argitzea iruditzen zaigu ezinbesteko. Estebanell-ek eta Ferres-ek, adibidez, (2001: 337) bi txat-mota bereiztu dituzte: antzeko interesak dituztenentzako gune zabal eta askeak batetik, eta, eztabaida antolatuak edota moderatuak, parte hartzeko arau zorrotzak dituztenak, bestetik⁴. Bereizketa hori bat dator Blancok burutu

⁴Lehenengoaren adibidea da Peralesek azalduakoa (1998). Bigarrenaren adibidea hurrengoa dugu: <<http://www.cervantesvirtual.com/tertulias/tematicas/aprendizaje.shtml>>

duen esperientziaren ondorioekin (2001). Aberasturik eta Salcedak (2003: 50-51) mintzagai serioa duten aretoak egon badaudela egiaztatu dute, eta, adiskidantzarako bide izateaz gain, ikasleekin zein lankideekin erabiltzeko baliagarritasuna azpimarratu du Garnachok (2000).

Bestetik, maiz leporatzen zaizkion faltsukeria eta isolamendua ez dira eremu birtualetan bakarrik sortzen diren arazoak. Egia da oraingoz esparru horietan zaila dela egia eta gezurraren arteko mugak bereiztea (Aberasturi eta Salceda, 2003: 51) baina jeneralizatzea beti da arriskutsua: urrutiago joan gabe, iruzurra mundu errealean ere badago eta isolatzea liburu bat bakarka irakurtzen denean ere gertatzen da.

Echeverriak (1995) hausnarketa interesgarria egiten du, ziberespazioan sortzen diren giza harremanen sakontasunari buruz. Teorian isolaturik egonda, beharbada fisikoki hurbil ez dagoenarekiko harremanak ez dira horren abstraktuak eta birtualak izango, baldin eta pertsonak jokoan barru-barrukoena jartzen badu: pentsatzen duena. Beraz, horrelako komunikazioa egunero aurrez aurre dugunarekin baino sakonagoa izan daiteke. Antzeko ondorioa dute egindako ikerketa eta esperientzia batzuek (Cruz Piñol, 2004; Sales eta Adell, 1999). Areago: txatean komunikazioa berehalakoa den heinean, hurbiltasun fisikoa sumatzen da, nahiz eta pantailan irakurtzen denaz gaineko informazioak ez.

Erabilitako hizkuntzari bagagozkio, egia da sortzen diren testuak ez direla beti zuzenak izaten, ez ortografiaren ikuspegitik, ez estiloarenetik. Arrazoi bakarra, ordea, ez omen da abiadura handiz idatzi beharra. Antza denez, nahita egiten da zenbaitetan. Horregatik, arestian aipatutako kritika topikoa izan daiteke (Mayans, 2002). Hona hemen, hizkuntzari dagokionez, azken datu bat aintzat hartzeko: txat-saio informaletako hizkera berezia izaten den arren internautaren adinarekin ba omen du zerikusirik (Aberasturi eta Salceda, 2003: 87-91) eta irakasleen artekoa denean, informala izanda ere, badirudi hizkuntza estandarra erabiltzeko joera dagoela (Torres, 2002).

Hau a2a. ote?: “dakienarentzat, hitz erdi bat nahikoa”

Txatetako hizkuntza aipatu dugu dagoeneko. Ez da artikulua asmoa “ordenagailu bitarteko komunikazioan” beste hizkuntza bat sortzen ari den⁵ edota aldaketa onerako denentz eztabaidatzea. Baina txatean erabilitako hizkerak ezaugarri bereziak dituenez, komunikaziorako bide hau erabili aurretik, horren inguruko hausnarketa egiteari interesgarri deritzogu. Bi dira autoreek bereziki nabarmentzen dituzten ezaugarriak (Aberasturi eta Salceda, 2003; Cervera, 2001; Juan, 2001; Yus, 2001a; Mayans, 2000; Torres, 1999).

Lehenengo eta behin, ahozko komunikazioaren eta idatziaren ezaugarriak bilbatu egiten dira honelako elkarrizketa birtualetan; tarteko zerbait da eta elkarrizketa idatzi egiten dela esan genezake. Bestela esanda, ez da idatzizko diskurtso huts-hutsa eta testuak ia ez dira erreparatzen baina, aldi berean, idazteak (teklak jotzeak, egia esateko) ahozko testuak ekoiztean baino hausnarketa sakonagoa eskatzen du. Azken produktuak aurrez aurre burutzen diren elkarrizketen ezaugarrietako asko ditu.

Bestalde, mezuak behar bezala ulertzeko testuinguruak ematen duen informazio osagarriak ez dago, ez ikusizkorik, ez entzunezkorik. Hau honela, sentimenduak zein gogo-aldarteak labur-labur adieraztea zaila da. Elkarrizketa bideratzeko atzeraelikadura ematen duen ikusizko aztararik ere ez dago, jakina. Egoera honi erantzuteko irudimena eta konpentsatzeko bideak erabiltzen dira: etendura-puntuak ohi baino maizago txertatu, galdera-ikurrak eta harridura-markak errepikatu, egoera narrazio gisa deskribatu, onomatopeiak sartu, ikur bereziak baliatu...

Orain artekoak garrantzitsuenak diren arren, txat-saioak hobeto ulertzeko eta horietan erosoago aritzeko kontuan hartzeko beste iruzkin batzuk ere interesgarriak direlakoan gaude.

- Mezuak bidaltzean bete beharreko jendetasunezko arauak (sareko etiketak edo “*netiketak*”) aipatzen dira. Zentzuz jokatzeko nahikoa litzateke. Erakunde edota webgune batzuek, aldiz, zehaztu egiten dituzte erabiltzaileak jakinaren gainean egin daitezkeen. Arau orokorren artean honakoak daude: areto batera sartzean zein bertatik irtetean konektaturik daudenak agurtzea eta maiuskulaz idaztea oihukatzearekin parekatzen dela. Bestalde, emotikonoek eta laburdurek ez dute beti esanahi bakarra eta, batez ere, kultura desberdinetako jendeak erabiltzen baditu gaizki ulertuak sortzeko arriskua dago⁶. Gauza bera gerta daiteke jargoi edo argotekin.

⁵Oro har teknologia berrien bidezko komunikazioan hizkera berezia dela eta, euskaraz antzeko bidetik joango litzateke Zazpiak Batman kolektiboak, Kilometroak 03rekin batera, sortu zuen «SMS: Segapotoen Mezu Sekretuak» hiztegia <<http://www.argia.com/cgi-bin/mantxut/sms.cgi?klase=HZTG>>; “zibereuskara” ei da.

⁶ Aberasturi eta Salcedak (2003:102-103) barreei buruz egindako oharra dibertigarria bezain argigarria da.

- Ahozko elkarrizketan egoten den erritmoa eta txatekoan egoten dena desberdinak dira; txandean aldaketa ere desberdina da. Dena dela, mintzagaiak gainjarri egiten dira, aurrez aurreko solasaldietan gertatzen den bezala eta baldintza teknikoek areagotu egiten dute arazoa. Ondorioz, txandak errespetatzea kontrolagaitza izaten da partaideak bi baino gehiago direnean.
- Testuak motzak izaten dira; areago: esaldiak laburrak izanda ere, moztu egiten dira maiz. Arrazoiak, hizketako txanda ez galtzea eta solaskideak ez nekatzea, batik bat. Halaber, aldibereotasunaren ondorioz, dena delakoagatik solaskideak erantzuna ematea luzatzen badu, bere esku-hartzearen haria gal daiteke.
- Isiltasunaren egitekoa testu ezak hartzen du. Erantzun-falta luzatzearen zioa ez da bakarra: solaskideak deskonektatu gabe alde egitea, beste batekin hizketan aritzea, sistemak behar bezala ez erantzutea... Gainera, komunikazioan “zarata” ere badago; adibidez, komunikazioa kontrolatu nahi duten galderak egiten direnean, “*arestian idatzi dudana irakurri duzu?*” bezalakoak.
- Mezuak idatzi ahala agertzen dira pantailan, bata bestearen atzetik; hori betetakoan desagertu egiten dira. Beraz, ahozko adierazpenek baino iraunkortasun luzeagoa duten arren, galdu egingo da idatzitakoa non eta txatak gordetzeko erarik eskaintzen ez duen.

Txata irakasleen prestakuntzan: “egintzek hitzek baino indar handiagoa dute”

Txataren erabilera informala aldeko iritziak ugari dira, pertsonen arteko harremana errazten duen baliabide gisa (Sales eta Adell, 1999; Fernandez Pinto, 1999). Ikasleekin burututako esperientzia batzuen berri izan dugu Interneten begiratuta⁷; guk, aldiz, irakasleen arteko erabilera formala eta moderatua da bereziki aztertu nahi izan duguna.

Zeregin horretarako, sistemaren egokitasuna arrazoiitu da (Ortega, Isla eta Pavón, 2000; Fernandez Jimenez, 2002) Halaber, hizkuntzen ikas-irakaskuntzaren esparruan, irakasleentzako jarduerak proposatu ditu Olga Juanek (2001).

Baina txataren erabilera ez da teoria hutsean geratu, eta esperientziak eman dira aditzera, irakaslegaien zein jardunean dauden irakasleen prestakuntzan (Fernandez Pinto, 2003; Llorens, 2001; Estebanell eta Ferres, 1999; Estebanell eta alii, 1998). Txatak izandako arrakasta azpimarratzeko, formazio-saioetan parte hartu zutenek ikastaroak bukatu ondoren erabiltzen segitu zutela nabarmendu dute lehenengoan.

Gure asmoarekin zerikusia duten beste bi esparrutan ere baliatu dute txata. Sistema honekin irakasleen arteko “klostro birtualak” egin dira, aurrez aurrekoen ordez gelak herrietan sakabanaturik dituzten eskoletan⁸ zein interes komuna duten irakasle-taldeetan lanaren osagarri⁹. Bestalde, txat-saioak proposatu eta gauzatu dira kongresuetan: 2001eko abenduan egindako “*La educación en internet e internet en la educación*”¹⁰ eta 2002ko irailean burututako “*Cultura & Política @ CiberEspacio*”¹¹, besteak beste.

Eta gurean zergatik ez?: “gauzak egiten hasterako ondo pentsatu”

2004ko bateratze-prozesura etorrira, tutore gisa nuen talde txikiko kideek eskarmentu luzea zuten euskara irakasteen (gutxien zuenak 9 urtekoa, eta batek baino gehiagok 25etik gorakoa) gehienak, ordea, Interneten hasi berriak ziren eta prestakuntza aldetik ere abiapuntuak desberdinak ziren. Hortaz, oinarriko helburuarekin zuzen-zuzenean loturik ez zeuden bestelako jarduerekin lana dinamizatzen saiatu ginen; Marcelok (2002) “*dimensión social*” bezala definitu du. Ekintzabideok pertsonen arteko harremanekin zuten zerikusia, talde-dinamika sortzea eta harreman sozialak sustatzea alegia, hala nola emotikonoak erabiltzea, taldeko foroan txistek eta informatikari buruzko biñetak zintzilikatzea, IKTen inguruko informazioa ematea....

⁷Ikus bibliografia atalean.

⁸ <http://users.servicios.retecal.es/sblanco2/html/claustro_virtual_en_un_cra.html>

⁹“El lapicero digital” proiektuaren baitan <<http://roble.pntic.mec.es/~jblesa/adigital/index.html>>; proiektu horretan ikastetxeen arteko txata ere badago.

¹⁰MINISTERIO DE EDUCACION, CULTURA Y DEPORTE: “Actas del Congreso *la educación en internet e internet en la educación*” CDA.

¹¹Eztabaidatutako gaien artean, gainera, txata eta hizkuntzen irakaskuntza:

<<http://www.cibersociedad.net/forum/viewtopic.php?t=103&sid=ca11c94fd7e0f0aee005f927eb00459a>>

<<http://www.cibersociedad.net/forum/viewtopic.php?t=95&sid=ca11c94fd7e0f0aee005f927eb00459a>>

Prozesua aurrera zihoan neurrian, ohartu ginen postontzi komunetan mezu-kopuruak gorabeherak zituela talde txikian eta ez zela erraza partaideak lanpetuta egonda erritmoari eustea. Kontuan izan dezagun prozesuan komunikazio asinkronikoa zela nagusi, HABEneten baitako posta elektronikoa eta foroak baliatuta. Horregatik, aditu batzuek komunikazio-mota hori hobesten duten arren (Gallego, 2003) beste iritzi batzuk hartu genituen aintzat eta aztertutako bibliografiaren arabera partaide aktiboek ondo baloratzen dute txataren erabilera.

Bestalde, postontzi komunetan eta foroetan idaztea ez omen da uste bezain samurra ingurune birtualean ohiturik ez daudenentzat. Zailtasun horrek ez du zerikusirik ahozko adierazpenerako gaitasunarekin eta, gainera, talde-lana oztopa lezake (Sales eta Adell, 1999). Areago oraindik: txat bidezko komunikazioa foroetakoa baino hobeto baloratu den esperientziarik badago (Fernandez Pinto, 2003) Hortaz aparte, muturreko bi jarrera zeudela susmatzen genuen ordura arteko eskarmentuaren arabera: esparru birtualeko sistemak mezu berriak zeudela jakinaraztean (HABEneten banderatzko gorriak dira ohartarazleak) itotze-sentsazioa sortzen zen inoiz partaideengan.

Kontu berririk ez zegoela ikusteak, ordea, zenbaiten motibazioa ahuldu egiten zuen. Horregatik, komunikazio sinkronikoa eta asinkronikoa elkarrekin uztartzeko aukera ez zen baztertzekoa (Salinas, 1999) mota bakoitzari eta erreminta bakoitzari bere zeregina jarrita eta arauak guztien ezagun izanda (Guitert eta Gimenez, 2000).

Horrez gain, esparru birtualetan sortzen den arazo baten berri izan genuen: ikas-irakaskuntzarako eraikitzen diren horrelako espazioek ustez oso interaktiboak diren erremintak dituzten arren (txata barne dela) ikasle askok “bakarrik” ikusten du bere burua. isolatze-sentipena egon ohi da (Fernandez Pinto, 2003; Adell, 2001: 128). Pentsaera hori estu loturik dago lanerako eta, oro har, komunikatzeko ohiturekin zein baldintzekin.

Izatez, Internet baliatuta lan egin ahal izateko oinarritzko bi osagai bereizten dira: teknologikoa eta pertsonala. Lehenengoan, honako hauek ditugu: komunikatzeko sistemak, espazio konpartituak, informazio konpartituak, informazio hori gorde, eskuratu edota lantzeko aukerak...

Bigarrena hurrengoek osatzen dute: pertsonak nola antolatzen duten lana, nola komunikatzen diren, taldeen kudeaketa, talde-lana nola diseinatzen den, talde-dinamika... Bigarren eremu honetakoak dira Fernandez Pintok (2003) esperientzia birtual baten kalitatea eta eraginkortasuna baldintzatzen duten faktoreen artean nabarmendu dituen lauak. Eta beste esperientzia eta ikerketa askoren arabera ere baieztatu egiten da tutoretza-funtzioa ezinbestekoa dela (Cruz Piñol, 2004; Martinez, 2004; Llorens, 2001; Gutierrez eta Lopez, 2000). Bestela esanda, osagai teknologikoa ez da nahikoa eta bere ustiapenerako pertsonalari arreta osoz erreparatu behar zaio. Azken batean, ziberespazioan, ordenagailuen atzean, pertsonak daude.

Osagai teknologikoaren ikuspegitik, aipatu dugu dagoeneko HABenet sareak baduela txat-sistema. Gainera, ez da, agidanean, asko erabiltzen. Arazoa orokorragoa omen da. Esate baterako, gaztelania irakasteko eraiki diren webgunetan gutxitan erabiltzen omen dira baliabide elektronikoak komunikaziorako (Cruz Piñol, 2004) eta sarean jasotako iritziak ildo beretik doaz¹². Osagai pertsonalari zegokionez, autonomia-maila handia genuen aztertzaileen prestakuntza-saioretan taldeetako tutore izan ginenok.

Azkenik, euskaltegietako irakasleentzat campusaren aukerak ezagutzea interesgarria izan litekeelakoan geunden. Ezagutzea ez ezik praktikatzea ere bai. IKTek hezitzaileen roletan aldaketak ekartzen dituzte eta eskoletan benetan¹³ erabili ahal izateko prestakuntza ezinbestekoa da. Funtzio berrien artean, Gallego eta Alonsok (1999: 79) “lengoaia zein kode semantiko berriak ezagutu eta erabiltzea” deskribatu dute. Zehatzago oraindik, irakasleek txataren lengoaia ezagutzea beharrezkotzat jo dute Caberok, Llorentek eta Romanek (2004). Dena den, gaitasun teknikoa, bitartekoak erabiltzeko prestakuntza eta entrenamendua alegia, ez da nahikoa; ordenagailu bitarteko komunikazioari buruzko jarrerak ere baldintzatuko du lana.

¹² Hona hemen Interneten 2004ko apirilean idatzitako mezu bat <<http://www.profes.net>> atariko foroan:

El problema surge cuando entras en el chat y no hay nadie (...). Las pocas veces que he logrado hablar con alguien ha sido muy enriquecedor porque nos ponemos en contacto profes de muchos sitios y a mí, personalmente, me parece fenomenal.

¹³Europako Batzordearen datuei erreparatuta, irakasleen gutxiengoak erabiltzen ei du Internet hezkuntzako helburuetarako (Badia, 2002: 67) eta IKTak ez dira hezkuntza dinamikan erabat integratu (Gallego eta alii, 2003)

Aipagarria da Estebanell eta Ferresen esperientziaren baitan (1998) ikasleek txata erabili aurretik lanean ziharduten unibertsitateetako irakasleek bere erabili zutela.

Horregatik guztiagatik aurrerapausoa ematea erabaki genuen eta txatari lekua egitea taldearen jardunean, erremintaren baldintzatzaileak direla medio, saioak ondo planifikatzea behar-beharrezkoa zela ahaztu gabe (Cabero, Llorente eta Roman, 2004; Cruz Piñol, 2001)

Esperientziaren nondik norakoak: “afera eginez da hobekienik ezagutzen”

Helburuak

Esperientziaren helburuak hurrengoak izan ziren:

- Mailak egiaztatzeko azterketak zuzendu eta baloratzeko irizpideei buruzko eztabaida suspertzea talde txikian.
- Taldekideek Internet (eta HABEnetek bereziki) komunikatzeko eskaintzen duten beste aukera bat ezagutzea: txata.
- Txata modu kritikoan baloratzea, kideekin zein euskara ikasten ari direnekin erabiltze aldera.

Egindakoa

Jakin bagenekien txat-saio batean parte hartzeak eskatzen duen sinkroniak arazoak sortu zitzakeela eta agian denek ezin izango zutela parte hartu. Horregatik, taldeko postontzi komuna erabiliz deialdi bat egitea izan zen lehendabiziko urratsa. Erantzunak ikusita, eguna eta ordua zehaztu genituen, baita eztabaidagai nagusiak ere. Halaber, postontzi komunean *word* fitxategi batean txataren erabilera azaldu zen saioa burutu aurretik eta bileran landuko zen gai nagusiari buruzko informazioa helarazi zitzaizen partaideei (analizatutako azterketei emandako puntuazioak eta oharrak, besteak beste).

Txat-saioa bera, martxoaren hogeita hamaikan burutu zen eguerdiko ordu batetik aurrera. Taldekideak hamaika ziren guztira. Txat-saioan, berriz, partaidetza aktiboa bostek izan zuten eta bik, saiatu arren, ezin izan zuten sartu arazo teknikoak zirela medio.

Zazpietatik, guztiak emakumeak, sei lantokitik konektatu ziren eta bakar bat etxetik. Aurreikusitako garapenari jarraikiz, agurraren eta hasiera informalararen ondoren, hirugarren multzoko azterketei buruzko eztabaidari ekin genion. Irizpideak bateratzeko prozesuan sortutako zalantzek ere izan zuten tarterik (aztertzaileen partaidetza ahozko probetan, gutxieneko zuzentasun gramatikala...). Hasieran pentsatutako iraupena gainditu egin zen, eta ordu bete iraun beharrean ordu eta erdiko saioa izan genuen, nahiz eta partaide guztiak denbora osoan konektaturik egon ez. Elkarrizketa osoa jasotzeko modurik ez zegoenez, saioaren laburpena taldeko postontzi komunean zintzilikatu zen biharamunean, guztien eskura egon zedin.

Balorazioak

Bi izan dira saioa ebaluatzeko informazioa biltzeko bideak: tutorearen postontzira bidalitako iritzi idatziak eta aurrez aurreko azkeneko bileran esandakoak. Adierazpenak hitzez hitz jaso direnetan letra etzanez ikusiko ditugu ondoko lerroetan.

Laburpen gisa, praktikaren emaitza ona izan zela uste dugu: lehendabiziko helburua lortu zen. Gainerakoak ebaluatzeko denbora luzeagoa behar da. Datu garrantzitsua da denak errepikatzeko prest egotea, ezin izan zutenak konektatu ere bai. Partaide-kopurua polita izan zen, bestelako esperientziekin alderatuta behinik behin (Llorens, 2001). Era berean, ez da harritzekoa parte hartu zutenak izatea prozesu guztian gogotsuen aritu zirenak.

Aipatu behar da guztientzat esperientzia berria izan zela. Jasotako informazioaren arabera, akreditazio-prozesuan ez zen bestelakorik burutu eta ez dago campusean esperientzia gehiagoren frogarik. Niri dagokidanez, esan behar dut honelako sistemak ezagutu arren, moderatzaile gisa lehendabiziko aldiz aritu nintzela eta irakasleentzat ere aurreneko esperientzia izan zela, batentzat izan ezik. Dena den, horrena ere nahikoa mugatua (“*euskaltegiko kontuez behin taldetxoan, beste batek idazten zuela aritu nintzen, eta alabarekin bere lehen txatean*” [P1]).

Beste alderdi azpimarragarri bat: bibliografian aurkitutakoak baieztatu egin ziren neurri handian. Fernandez Jimenezek (2002) idatzi bezala, alde aurreko iritziak bazeuden, zabalduak diren usteekin bat zetozenak:

(...) irakurria eta entzunda neukan bihotz triste eta bakartiak alaitzeko oso tresna baliagarria zela, hau da, ligatzeko” [P2] “informalagoa izango zelakoan nengoen [P7].

Halaber, sistema erabiltzeko zalantzak zeuzkaten:

Ez dakit gai izango naizen horrelako gauza bat egiteko, ez baitut inoiz egin” “Teknikarako goizegi jaio naizenez, ez zait burutik ere pasatu erabiltzea [P2].

Lehendabiziko unean, bitartekoa berria zela nabaritu zuten:

“arraro samar egin zait, batez ere hasieran” [P4] Hala ere, ez zen konplikatu izan: “Pentsatu baino errazago suertatu da” [P7].

Erabilgarritasuna ikusi zioten sistemari:

Elkarreragina bat-batekoagoa izanik, ondorioak ateratzeko eraginkorragoa suerta daiteke [P3]. Modu polita izan daiteke iritziak trukatzeko” [P5] “Lotsatia denarentzat bikainak dira [P7].

baina halaber ohiturek pisu handia dute:

Nire ustez saio presentzialak aberatsagoak dira [P7].

Sistemaren mugez jabetu ziren. Eta elkarrizketaren haria mantentzea eta informazioaz jabetzea zaila dela azpimarratu zen:

Ohitura hartu behar duzu, bestela galdu egiten zara; adibidez, bati erantzuten diozun bitartean besteena galtzen duzu eta batzuetan haria galtzen nuen” [P2]. “Momento batzuetan informazioa korapilatu egiten da(...) txatean informazioa galdu egiten dela iruditzen zait [P7].

Pertsonen arteko harremana foroen bidezkoa edota mezuetakoa baino sendoagoa izan zela ematen du. Kide batek dioenez:

Mezuak [foroetakoak] oso hotzak dira [P1].

eta beste baten ustetan, txatean aritu arte beste kideekin ez zen harremanik egon. Baina aberasgarria bezain nekagarria izan zen, pantailaren aurrean ordu t'erditik gora arretatsu egotea ez da samurra. Sortutako giro birtuala azpimarratu zen:

“Taldearen jarrerari oso ona iritzi diot; guztiok saiatu gara denbora pixka bat ateratzen (...) eta gustura” [P7].

Alderdi ahulak ere azpimarratu ziren iruzkinetan:

(...) agian gehiegi luzatu gara hasieran ezer esan gabe P4].

Eta hobetzeko proposamenak egin zituzten; bik gaiak zehaztea garrantzitsua dela adierazi zuten, azken orduan informazio bila ez ibiltzeko edota beharrezkoa dena eskura edukitzeko. Beste batek horrelako saioa arinago egitea proposatu zuen, taldea lanean hasten denean alegia. Eta laugarren batek, arazo teknikoak konpontzea.

Erreminta gutxitan erabiltzen denez, alde zuretik baloratutako arrisku bat izan genuen: taldekoa ez zen norbait sartzea eta elkarrizketa oztopatzea; ez zen, ordea, halakorik gertatu. Izan ere, HABeneteko txatean sartzeko bi bide dago eta webgune orokorretik bertara iristeko, irakaslearen gunetik ez bezala, ez da pasahitzik behar.

Konexioan izandako etenek sortarazi zuten aurreikusi gabeko arazo bat; internauten hitzak erabilia “erorketak” gertatu ziren. Hala adieraztean (“*jausi naiz*”), hasiera batean ez zuten denek ulertu eta une barregarriren bat eman zen. Beste pasadizo bat gertatu zitzaigun. Goitizena ez zen erabili. Eta norberaren goitizena idazterakoan, sistemak ez du \bar{n} hizkia onartzen. Horregatik, partaideak ezagunak izan arren, bati behin baino gehiagotan egin zioten txat-saioetan errepikatzen den galderetako bat “*zer zara GHerraiz, neska ala mutila?*”.

Ondorioak: “gaztak agerian”

Sare telematikoek komunikatzeko era aldatu egin dute, eta aldaketa horrek ahalegin itzela eskatzen du; funtsean kultura aldaketa baitago. Bestelako inguruneetan jarduteko hezi gaituzte eta oraindik espazio telematikoa nekez ikusten dugu elkarreraginerako; irakasleok ere “alfabetatze digitala” behar dugu (Marques, 2004). Echeverriak (2000a: 117) antzeko ideia luzatu du:

Para intervenir con cierto decoro y eficiencia en estos espacios digitales es preciso un buen conocimiento del medio, lo cual implica un nivel tecnológico y semiótico.

Bestalde, geure prestakuntzan biharko (gaurko, agian) ikaslea izan behar dugu kontuan. Gallego eta Alonsoren hitzetan (2003) zibilizazio teknologikoan “etorkinak” gara; irakasleak, aldiz, “bertakoak”. Horren lekuko Yusek (2001b) ikerketa baten ondoren ateratako ondorioetako bat:

Los alumnos de UNI [Universidad] entran en el chat con una actitud de constante comparación con el medio comunicativo que les es más natural: la conversación cara a cara, mientras que los de ESO se mueven con mayor naturalidad dentro del chat (han crecido en un entorno ya altamente tecnológico y con redes como Internet ya sobreentendidas) y no son tan conscientes de la merma informativa respecto a la co-presencia física o no lo viven como una limitación a su expresividad.

Aldaketa teknologikoa azkarra da, hezkuntzako baina azkarragoa gainera. Areago oraindik, teknologia egunez egun doa aurrera eta aldaketa bat gureganatu orduko hurrengo dugu ate joka. Hala ere, abiadura, berez, ez da balore absolutua izango, eta hausnarketa da ezinbestekoa.


Hausnarketaz gain, pazientzia. Modu grafikoan adierazita, Interneten “nabigatzen” hasi aurretik “igerian” ikastea komeni dela aholkatu zuen Adellek¹⁴ aspaldi. Metaforarekin jarraikiz, igerian ikasteko saioa izan da txatean aritzeko esperientzia. Txateatzeko sistemarik sinpleena erabilia gainera, hitza, idatzizkoa, baina erabiltzen ez duena.

Taldeko kideen artean parte hartu ez zutenak euskaltegi handietakoak izan ziren, hots, hiru aztertzaile zituztenak. Hori zela medio, irizpideak bateratzeko prozesuan sortzen ziren gaiez aurrez aurre hitz egiteko aukera handiagoa zuten bertako irakasleek. Areago, batek adierazi zuen bezala, lankideekin hitz egiteko aukera izanda ere ez zuen txat saioen beharrik ikusten eta beste baten iritziz berez nahiko handia den lan-karga gehiago zamatzea zen. Beraz, harreman pertsonala handiagoa denetan, nekezago ikusten da komunikatzeko sistema berrien beharrik.

.3:

¹⁴ Adell, J. (1996): “Primero, aprenda a nadar” *El Mundo* egunkaria <http://nti.uji.es/docs/nti/el_mundo.html>

Bilerako dekalogoia



1. Biler-a-deia ondo eginez gero, jendetza bezero.
2. Prestaketarik gabe, noraeza jaun eta jabe.
3. Giro gozoa, arrakasta osoa.
4. Agiri eta agiri, ezkutukoak ageri.
5. Buru-argia moderatzaile, jende guztia parte-hartzaile.
6. Azaldu beharrekoak azaldu, eta ez bururik galdu.
7. Rola, nor berea; hori da bilerako legea
8. Gai-zerrendatik kanpora, ez zara iritsiko inora
9. Erabakiak taldeak onar ditzan, denek behar dute partaide izan.
10. Jarraipena eta ebaluaziogintza; hori da azkeneko baldintza

1 Sarikon.ppt

Serrat, A.
(Pello Esnalek itzulia eta moldatua)

Ildo horretatik, baina, badago saihestu beharreko arazo bat: urruti dauzkagun pertsonengana hurbil gaitzake Internetek baina hurbil dauzkagunengandik urrundu. Ezinbestekoak dira erakunde berean aritzen direnen arteko komunikazioa eta talde-lana. Horrela, komunikazio birtualak gainerako lanaren osagarri beharko luke izan, ez ordezkio.

Dauden aldeak aintzat hartuta, bilera presentzialetarako balio duenak balio du txat saioetarako. Albert Serratek idatzitako dekalogoia itzuli zuen Pello Esnalek duela urte batzuk ¹⁵ (ikus .3); ia bere horretan da aplikagarri.

Bukatzeko, komunikaziorako sinkronizatorako tresna hau HABE-net proiektuaren sorreran esaten zen talde birtuala¹⁶ eraikitzeke beste bide den neurrian, askoz gehiago erabili daiteke. Orain arte planteatutako muga teknikoak aztertu eta, ahal den neurrian, bideratu beharko dira baina, zein ere den, arazo nagusia ez da plataformarena edo teknologiararena izango, erabiltzaileona baizik. Azken batean, benetako koxka ez da IKTak gure bizimoduan sartuko ote diren, nola eta zertarako erabiliko diren baizik. Cruz Piñolekin batera (2001) XXI. mendeko euskaltegiko ikasgelak mugarik izango ote duen planteatu daiteke; segur aski gela guztiek tradizionalak baino ingurune irekiagoa izango dute, irakasle-geleke ere bai.

¹⁵ "Egitasmoa eta memoria autoebaluazioaren bidean" prestakuntza saioetan erabilitako materiala.

¹⁶ Reingholdek 1994an (Echeverría, 2000a: 99) honela definitu zuen talde birtual bat zer den: "son grupos sociales que surgen en la red cuando un número suficiente de gente desarrolla en ellas discusiones públicas lo bastante largas y con tanta carga de sentimientos como para formar redes de relaciones personales en el ciberespacio"

Bibliografía

Aipatua

- Aberasturi, A.; Salceda, P.** 2003. *Hol@, de donde eres?* Barcelona: Ediciones B.
- Adell, J.** 2001. Tendencias en educación en la sociedad de las tecnologías de la información. In Area, M. (koord.) *Educación en la Sociedad de la Información*. Bilbao: Desclée de Brouwer: 103-138.
- Ali Gago, I.; Luna, R.** 1998. *Internet Chat. Charlas en la red*. Madrid: Anaya Multimedia.
- Badía, F.** 2002. *Internet: situación actual y perspectivas*. La Caixa, Colección Estudios Económicos, nº 28 <<http://tecnologiaedu.us.es/bibliovir/pdf/132.pdf>>
- Blanco, G.** 2001. Uso del chat en lengua extranjera: una herramienta para el aprendizaje colaborativo *La educación en Internet e Internet en la educación* kongresuan aurkeztutako komunikazioa. In Ministerio de Educación, Cultura y Deporte: *Actas del Congreso*. CD-ROMa
- Cabero, J. eta alii.** 2004. Las herramientas de comunicación en el aprendizaje mezclado” *Pixel-Bit*, 23: 27-41. <<http://tecnologiaedu.us.es/bibliovir/pdf/blended04.pdf>>
- Cervera, A.** 2001. La irrupción del coloquialismo en Internet y las nuevas tecnologías *II Congreso Internacional del Español*en aurkeztutako ponentzia <http://cvc.cervantes.es/obref/congresos/valladolid/ponencias/nuevas_fronteras_del_espanol/4_lengua_y_escritura/cervera_a.htm>
- Cruz Piñol, M.** 2004. Presencia (y ausencia) de los hipermedios y de los géneros electrónicos en las Webs para la enseñanza-aprendizaje del español como lengua extranjera (ELE). *Red Ele*, nº 0, marzo 2004. <<http://formespa.rediris.es/revista/index.html>>
- Cruz Piñol, M.** 2001. La enseñanza presencial del ELE en la era de Internet. ¿Tendrá límites el aula del siglo XXI? *Mosaico*, 7:10-18. <<http://www.sgci.mec.es/be/media/pdfs/mosaico/Mosaico07.pdf>>
- Echeverría, J.** 2000a. *Un mundo virtual*. Barcelona: Plaza y Janés.
- Echeverría, J.** 2000b. Educación y tecnologías telemáticas. *Revista Iberoamericana de Educación*, 24: 17-36. <http://www.unex.es/didactica/Tecnologia_Educativa/PDF/Echeverr%EDa.PDF>
- Echeverría, J.** 1995. *Cosmopolitas domésticos*. Barcelona: Anagrama.
- Estebanell, M., Ferrés, J.** 2001. Internet, los espacios virtuales y la educación a distancia. In Area, M. (koord.) *Educación en la Sociedad de la Información*. Bilbao: Desclée de Brouwer: 325-357.
- Estebanell, M., Ferrés, J.** 1999. El uso de Internet en la formación universitaria. Análisis de una experiencia en la formación inicial del profesorado. *Educación-25*, 1999: 131-149 <www.bib.uab.es/pub/educar/0211819Xn25p131.pdf>
- Estebanell, M. et alii.** 1998. Internet como herramienta de trabajo en la formación inicial del profesorado. Una experiencia de comunicación entre alumnado de tres universidades. *VI Jornadas de Tecnología Educativa, Tenerife 1998* jardunaldietan aurkeztutako komunikazioa <<http://www.ull.es/congresos/tecneduc/Jmonz%C3%B3n%20y%20otros.html>>
- Fernández Jiménez, L.** 2002. La función y el uso del chat desde los modelos del curriculum en la formación del profesorado “*II Congreso Europeo de Tecnologías de la Información en la Educación y la Ciudadanía: una visión crítica*”n aurkeztutako komunikazioa <<http://web.udg.es/tiec/orals/c56.pdf>>
- Fernández Pinto, J.** 2003. Tutorías virtuales: acortando distancias a través de la comunicación electrónica. *Especulo. Revista de estudios literarios*, 23. Universidad Complutense de Madrid. <http://www.ucm.es/info/especulo/numero23/tuto_vir.html>

- Fernandez Pinto, J.** 1999. Tutorías virtuales. *Espéculo. Revista de estudios literarios*, 11. Universidad Complutense de Madrid. <<http://www.ucm.es/info/especulo/numero11/tutorias.html>>
- Gallego, M.J.** 2003. Intervenciones formativas basadas en *WWW* para guiar el inicio de la práctica profesional de los docentes. *Revista Iberoamericana de Educación*. nº 33 3: 111-131. <<http://tecnologiaedu.us.es/bibliovir/pdf/rie33a06.pdf>>
- Gallego, D. eta alii.** 2003. Profesión y docencia: el nuevo perfil de la profesión docente. 2003ko apirilaren 3an *Educared* kongresuan aurkeztutako lana.
- Gallego, D., Alonso, C.** 2003. Ante un nuevo paradigma comunicativo y formativo en la enseñanza a distancia. Dokumentu elektronikoa <<http://dewey.uab.es/pmarques/evte2/documentos/libreria/CNICE03Tex.doc>>
- Gallego, D., Alonso, C.** 1999. *El ordenador como recurso didáctico*. Madrid: UNED.
- Garnacho, P.** 2000. Chateando. *Cuadernos Cervantes*, 30 <http://www.cuadernos cervantes.com/multi_29_chateando.html>
- Guitert, M., Giménez, F.** 2000 Trabajo cooperativo en entornos virtuales de aprendizaje in Duart, J. M^a., Sangrá A. (Eds.), *Aprender en la virtualidad*. Barcelona: Gedisa: 113-134.
- Gutierrez, M.L., Lopez, M.E.** 2000. Las tareas del tutor online en la formación del profesorado de Español Lengua Extranjera. *Online Educa Madrid* kongresuan aurkeztutako ponentzia. <http://cvc.cervantes.es/obref/formacion_virtual/formacion_continua/luz.htm>
- Isla, J.L., Ortega, F.D.** 1999. Una comparativa entre herramientas de comunicación interpersonal sincrónicas sobre Internet desde el punto de vista educativo *Eduotec 99* Kongresuan aurkeztutako ponentzia. <<http://www.netdidactica.com/jornadas/ponencias/franyjos.htm>>
- Juan, O.** 2001. Actividades con el chat en la clase de E/LE: lenguaje usado. *Cuadernos Cervantes*, 33. <http://www.cuadernos cervantes.com/multi_33_chat.html>
- Llorens, F.** 2001. Formación virtual del profesorado: una experiencia real. <<http://tecnologiaedu.us.es/bibliovir/pdf/archivoPDF2.pdf>>
- Marcelo, C.** 2002. Aprender con otros en la red. Investigando las evidencias. *Virtual Educa 2002* kongresuan aurkeztutako ponentzia. <<http://prometeo.us.es/idea/mie/pub/marcelo/virtualeduca2002.pdf>>
- Marques, P.** 2004. La educación del futuro:renovación de los procesos de enseñanza y aprendizaje a través de las TIC. Dokumentu elektronikoa <<http://dewey.uab.es/pmarques/bilbaoefuturo.htm>>
- Martinez, J.** 2004. El papel del tutor en el aprendizaje virtual. Dokumentu elektronikoa. <<http://www.uoc.edu/dt/20383/index.html>>
- Mayans, J.** 2002. De la incorrección normativa en los chats. *Jatorriz Revista de Investigación Lingüística*, nº 2, vol. V: 101-116. *Archivo del Observatorio para la CiberSociedad* en eskuragarri <<http://www.cibersociedad.net/archivo/articulo.php?art=43>>
- Mayans, J.** 2000. Género confuso: género chat. *Textos de la CiberSociedad*, 1 <<http://www.cibersociedad.net/textos/articulo.php?art=22>>
- Montes, J.I.; Ortega, F.D.** 2000. Una comparativa entre herramientas de comunicación interpersonal sincrónicas sobre Internet desde un punto de vista educativo. *Netdidactic@*, 5 <<http://www.netdidactica.com>>
- Nuñez, F.** 2001. Internet, fábrica de sueños. Claves para la comprensión de la participación en foros y chats. *Digit HUM revista digital d'humanitats*, 3 <<http://www.uoc.edu/humfil/articulos/esp/nunez/nunez.html>>

- Ortega, F. et alii.** 2000. El IRC como herramienta para la formación flexible y a distancia. *Pixel-Bit*, 14: 31-41. <<http://www.sav.us.es/pixelbit/articulos/n14/n14art/art144.htm>>
- Perales, J.** 1998. Interneten euskaraz solasteko kanala. *Hizpide*, 41: 40-42.
- Sales, A., Adell, J.** 1999. Una experiencia de educación on line: curso de formación de formadores virtuales. *Eduotec '99, Sevilla* kongresuan aurkeztutako komunikazioa.
- Salinas, J.** 1999. Uso educativo de las redes informáticas. *Educar*, 25. Univ. Autónoma de Barcelona: 81-92.
- Torres, M.** 2002. Català col·loquial a Internet: els xats i els correus electrònics per a l'ensenyament de les varietats informals. *I Congreso ONLINE del Observatorio para la cibersociedad* aurkeztutako komunikazioa <<http://cibersociedad.rediris.es/congreso/comms/g16torres.htm>>
- Torres, M.** 1999. El xats: entre l'oralitat i l'escritura. *Jatorriz Els Marges*, 65 (diesembre 1999). Interneten 2001etik <<http://perso.wanadoo.es/mtorresv/articles/art-emot.html>>
- Yus, F.** 2001a. *Ciberpragmática*. Barcelona: Ariel.
- Yus, F.** 2001b. Ciberpragmática: entre la compensación y el desconcierto. *II Congreso Internacional de la lengua española* aurkeztutako ponentzia <http://cvc.cervantes.es/obref/congresos/valladolid/ponencias/nuevas_fronteras_del_espanol/4_lengua_y_escritura/yus_f.htm#3>

Hezkuntza munduan txataren erabilerari buruzko beste aipu batzuk

Artikuluak

- Gonzalez, B.H.** 2002. IRC: definición y usos en la enseñanza. Dokumentu elektronikoa <<http://www.iespana.es/byrong/infoeduc/irc.htm>>
- Melero, M.** 1998. Internet eta hizkuntzen irakaskuntza. *Hizpide*, 38: 58-73
- Mogollon, I.** 2004. El chat y otros procedimientos de evaluación a distancia aplicables en sistemas mixtos. *Pixel Bit*, 23 <<http://www.sav.us.es/pixelbit/articulos/n23/n23art/art2304.htm>>
- Mynard, J.** 2002. Introducing EFL students to chat rooms. *The Internet TESL journal*, vol. VIII, 2 february 2002 <<http://iteslj.org/Lessons/Mynard-Chat.html>>
- Sitman, R.** 1998. Divagaciones de una internauta. Algunas reflexiones sobre el uso y abuso de la Internet en la enseñanza de E/LE. jatorrizko argitalpena *Boletín de la Asociación para la Enseñanza del Español como Lengua Extranjera*, 18: 7-33. <<http://www.ucm.es/info/especulo/numero10/sitman.html>>

Interneteko loturak

Hizkuntzak ikasten ari direnentzako txatak:

- <http://chat.englishclub.com> (ingelesez),
 - <<http://www.larutadelalengua.com>> eta
 - <http://www.geocities.com/Athens/Acropolis/1506/studentchat.html> (gazteleraz)
 - <<http://espanglichchat.com>> (ingelesez eta gazteleraz)
- Bestelako esperientzia batzuk:
- frantsesa ikasten ari diren DBHko ikasleekin, <<http://comunidad-escolar.pntic.mec.es/734/experi.html>>
 - bigarren hezkuntzako biologiako ikasleekin (“Una práctica de genética compartida en tiempo real”) <<http://www.educared.net/ProfesoresInnovadores/unidades/verUnidad.asp?id=629>>
 - “El lapiz digital” proiektuaren baitakoa <<http://www.educa.aragob.es/revlapic/lapiz7/revista7.html>>